

Desde las ventanas  
estamos en las calles

**M**  
**1**

¡Cuelga tu cartel!

**GORA MAIATZAREN LEHENA!**

**CGT - ESK - SOLIDARI - STEILAS**

# NO QUEREMOS SU NORMALIDAD

**E**ste año la crisis sanitaria que estamos viviendo hace que este 1 de mayo tengamos que celebrarlo confinadas en nuestras casas. Nos confinan para poder volver a la normalidad cuando su normalidad es el problema. Estamos en casa sí, pero no nos han tapado la boca.

Este año, aún más que nunca, tenemos que estar alerta, no podemos bajar la guardia. Estamos ante un escenario inaudito, y desconocemos cual va a ser el devenir de los acontecimientos, pero sabemos que el capital va a intentar que una vez más, sea la clase trabajadora la que pague los platos rotos. Nosotras no queremos volver a la normalidad, porque la normalidad era y sigue siendo el problema.

Esta crisis ha puesto de manifiesto que nuestro discurso de que un mundo más justo es posible no solo es acertado sino que además es más necesario que nunca.

Siete semanas confinadas en nuestras casas han sido suficientes para evidenciar que esa normalidad que nos imponen era sinónimo de devastación y sobrexplotación de los recursos naturales. El planeta ya nos había dicho que estábamos llegando a límites insostenibles y esta pandemia nos ha puesto frente al espejo. Esa normalidad no es más que un capitalismo voraz, que mira hacia otro lado y sigue esquilmando y agotando los recursos naturales con el único fin de aumentar la riqueza de unos pocos.

Su normalidad, la normalidad de este sistema criminal no es otra que la de las políticas de recortes en los servicios públicos y la privatización de estos. La mercantilización de lo común, haciendo negocio con necesidades básicas. El desmantelamiento de la sanidad pública tiene consecuencias graves, muy, muy graves y esta crisis sanitaria nos lo ha vuelto a demostrar: la privatización mata.

Esa normalidad de la que hacen gala no es otra que valorar solo aquello capaz de aportar beneficios al capital y sin embargo ahora cuándo más lo hemos necesitado resulta que han sido los trabajos reproductivos y de cuidados los que han resultado ser esenciales. Esenciales para el sostenimiento de la vida. No son los trabajos productivos los que están paliando los efectos de la crisis, las limpiadoras, el personal sanitario y quienes trabajan en los centros de salud, cuidadoras, bomberos, repartidores, empleadas de supermercados, de tiendas, trabajadoras de hogar transportistas, personal de correos, ferroviarios..., esos son los servicios esenciales. Es decir, aquellos trabajos que ponen en el centro la vida, que afectan directamente al bienestar de las personas y a la atención de sus necesidades. Muchos de estos trabajos invisibilizados e infravalorados social y económicamente, realizados mayoritariamente por mujeres.

En su normalidad, quienes no somos rentables, aquellas que estamos en los márgenes no contamos y es que en esta crisis también se ha evidenciado la vulnerabilidad en la que se encuentran los sectores más precarizados, Empleadas de hogar, personas sin papeles, falsos autónomos... han perdido la capacidad de los escasos recursos que les permiten sobrevivir. Familias hacinadas en una habitación, en pisos pateras, una situación aún más sangrante en ciudades donde abundan los pisos vacíos, en muchos casos, de la administración. Todas estamos confinadas, también las mujeres que sufren violencia, condenadas a convivir 24 horas con sus agresores.

Tampoco podemos olvidarnos de las personas desplazadas, refugiadas, hacinadas en campos sin ninguna medida preventiva y menos aún, sanitaria. Las personas que están en o las personas presas que han visto recortados y vulnerados sus derechos de una manera intolerable sin que se hayan tomado medidas para que este confinamiento sea también en las prisiones más llevadero.

Así como la mayor pandemia mundial, que no es el covid-19 sino el hambre, puede matar a 300.000 personas al día en los próximos 3 meses.

Somos nosotras, las personas, quienes por responsabilidad y solidaridad estamos confinadas no nuestros derechos. Los derechos no están confinados, no lo han estado nunca por eso es incomprensible la conculcación que se está haciendo de muchos de ellos, los abusos policiales que hemos visto durante estos días, la militarización de algunos barrios y ciudades que no respondían a una necesidad real, la cantidad de txibatots de balcón que han proliferado estas semanas que insultan a vecinas y vecinos pero que son incapaces de decir nada cuando oyen gritos y golpes en la vivienda contigua, la prohibición de manifestarnos aun cuando respetamos todas las medidas de seguridad... Lo haremos de otra manera, pero lo seguiremos haciendo, hemos vaciado las calles, pero volveremos a llenarlas; que no les quepa duda.

No, no queremos su normalidad, no queremos regresar a esa normalidad gris y excluyente que nos somete y que antepone los intereses del capital frente a los de las personas. Este modelo económico y social no nos vale. No podemos volver a la normalidad anterior a la crisis del coronavirus, porque esa normalidad es el problema.

Por un mundo justo, que ponga en el centro la vida y a las personas, respetuoso con el medio ambiente. La lucha continua.

**¡Viva el 1º de Mayo!**  
**¡Viva la lucha obrera!**



# EZ DUGU NORMALTASUNIK NAHI

**A**urtengo osasun-krisiaren ondorioz, behartuta gaude maiatzaren lehena gure etxeetan konfinatuak egoten. Konfinatu gaituzte normaltasunera bueltatu ahal izateko, normaltasuna arazoa denean. Etxean gaude, bai, baina ez digute ahoa itxi.

Aurten, inoiz baino gehiago, erne egon behar dugu, adi. Egoera ezezagun honen aurrean, ez dakigu zein izango den gertaeren bilakaera, baina badakigu kapitala saiatuko dela, beste behin ere, langile-klaseak bere hutsak ordaintzen. Horregatik ez dugu normaltasunera itzuli nahi, normaltasuna baitzen guretzat arazoa eta oraindik ere baita.

Gure diskurtsoak dio mundu juxtuagoa posiblea dela. Krisi honetan, berriz ere, hau esan beharra dugu.

Zazpi aste hauetan zehar, gure etxeetan konfinatuak, agerian gelditu da inposatzen diguten normaltasun hori baliabide naturalen suntsitze eta gehiegizko ustiapenaren ondorioa dela. Planetak jada esana zigun muga jasanezinetara iristen ari ginela, eta pandemiak hori ispiluaren aurrean jarri digu. Normaltasun hori kapitalismo suntsikorra baino ez da, beste aldera begiratzen duena eta baliabide naturalak agortzen jarraitzen duena, gutxi batzuen aberastasuna handitzeko helburu bakarrarekin.

Haien normaltasuna, sistema kriminal honen normaltasuna, zerbitzu publikoetako murrizketa-politikarena eta haien pribatizazioarena besterik ez da. Gizaki guztionak diren gauzen merkantilizazioa, oinarrizko beharretatik negozioa eginez. Osasun publikoa suntsitzeak oso ondorio larriak ditu, larri- larriak, eta osasun-krisi honek berriz ere erakutsi digu: pribatizazioak hil egiten du.

Erakusten duten normaltasun horrek baloratzen du soilik kapitalari etekinak emateko gaitasuna, baina orain, gehien behar izan dugunean, ugaltze eta zaintze-lanak izan dira funtsezkoak. Bizitzari eusteko funtsezkoak. Ekoizpen-lanak ez dira krisiaren ondorioak arintzen ari, baizik eta garbitzaileak, osasun-langileak eta osasun-zentroetan lan egiten dutenak, zaintzaileak, suhiltzaileak, banatzaileak, supermerkatuetako enplegatuak, dendetakoak, etxeko langile garraiolariak, postako langileak, trenbideko langileak... horiek dira funtsezko zerbitzuak. Hau da, bizitza erdigunean jartzen duten lanak, pertsonen ongizatean eta haien beharretan zuzenean eragiten dutenak. Lan horietako asko, ikusezin bihurtuta eta gizartearen eta ekonomiaren aldetik gutxietsita, gehienak emakumeek egiten dira.

Normaltasun horretan, errentagarriak ez garenok, ertzetan gaudenok ez gara existitzen; izan ere, krisi honetan ere agerian geratu baita sektorerik prekarizatuenean, hala nola etxeko langileek, paperik gabeko pertsonek, autonomo faltsuek eta abarrek duten ahultasuna, bizirauteko aukera ematen dieten baliabide urrien ahalmena galdu baitute. Gela batean, patera-pisuetan, pilatutako familiak. Egoera hau are odoltsuagoa da administrazioaren etxebizitza huts asko dauden hirietan. Denok gaude konfinatuta, baita indarkeria jasaten duten emakumeak ere, erasotzaileekin 24 orduz bizitzera kondenatuak.

Ezin ditugu ahaztu, halaber, lekualdatuak, errefuxiatuak, soroetan harrapatuta daudenak, inolako prebentzio-neurririk gabe eta are gutxiago osasun-neurririk gabe. Preso dauden pertsonei ere, haien eskubideak modu onartezinean murriztu eta urratu zaizkie, espetxetako konfinamendua eramangarriagoa izan dadin neurririk hartu gabe.

Ezin dugu ahaztu, halaber, Munduko pandemia handienak, goseak, eta ez 19. covid-ak 300.000 lagun hil dezakeela egunean hurrengo 3 hilabeteetan.

Gu, pertsonok, konfinatuak gara arduraz eta elkartasunez, ez gure eskubideak, ez. Eskubideak ez daude konfinatuta, ez dira inoiz egon; horregatik, ulertezina da horietako askoren urraketa; horren adibideak dira egun hauetan ikusi ditugun polizia-abusuak, behar erreal bati erantzuten ez zioten auzo eta hiri batzuen militarizazioa, aste hauetan ugaritu diren balkoiko txibatoen kopurua, auzokoak iraintzen dituztenak baina ondoko etxebizitzan oihi eta kolpeak aditzean isiltzen direnak, jaso dugun manifestatzeko debekua segurtasun neurri guztiak errespetatu arren... Beste era batera egingo dugu, baina egin egingo dugu: kaleak hutsik daude baina beteko ditugu, ez izan zalantzarik.

Ez, ez dugu normaltasunik nahi, ez dugu normaltasun gris eta baztertzailerik horretara itzuli nahi, horrek menderatzen gaituelako eta kapitalaren interesak pertsonen interesen aurretik jartzen dituelako. Eredu ekonomiko eta sozial horrek ez digu balio. Ezin gara itzuli koronabirusaren krisiaren aurreko normaltasunera, normaltasun hori arazoa baita.

Bidezko mundu baten alde, bizitza eta pertsonak erdigunean jarriko dituen, ingurumena errespetatuko duena. Etengabeko borroka.

**Gora maiatzaren lehena!  
Gora langileon borroka!**

